

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

"Stalking" delitua emakumeek jasaten duten indarkeriaren ikuspegitik

Egilea

Nahikari Garitano Lavado

Gradua

Zuzenbidea

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

5. Genero berdintasuna

Laburpena

Espainiar Zigor Kodeak 1/2015 Lege Organikoaren ondorioz erreforma handi bat jasan zuen 2015. urtean. Erreforma horren arrazoietako bat Istanbulen, 2011ko maiatzaren 11an eginiko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzkoa, izan zen. Hitzarmen honen ondorioz, espainiar legegileak hainbat portaera zigortu behar zituen emakumearen aurkako indarkeria saihesteko helburuarekin. Portaera horien artean "stalking" (jazarpena) zegoen, eta, legegileak delitu gisa tipifikatzea erabaki zuen Zigor Kodeko 172 ter. artikuluan. Beraz, lan honen helburua "stalking" delitua aztertzea da, emakumeek jasaten duten indarkeriaren ikuspegitik. Horretarako, lehenik eta behin, "stalking" delituaren tipo penala aztertuko da. Ondoren, ikerketa batzuetan oinarrituz, tipo penal honek emakumearen aurkako indarkeriarekin eta genero-indarkeriarekin duen harremana arakatuko da. Azkenik, legegileak delitua tipifikatzerako garaian emakumearen aurkako indarkeria saihesteko behar hori 172 ter. artikuluan nola islatu duen aztertuko da.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Gradu Amaierako Lan honek 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuei genero berdintasunaren arloan egiten dio ekarpena. GrAL honen bidez "stalking" delitua aztertzen da emakumeek jasaten duten indarkeriaren ikuspegitik. Hori dela eta, lan honen helburua genero-berdintasuna bermatzea izan da; zehazki, emakumearen aurkako indarkeria eta genero indarkeria saihesteko ahaleginak egin dira. Horretarako ikerketa batzuen bidez

azterketa bat egin da ikusteko ea "stalking" delituak genero guztiei berdin eragiten dien edo desberdintasunen bat dagoen. Ikerketa desberdinetatik emaitza bera ateratzen da, hau da, delitu mota honen biktimak nagusiki emakumeak direla. Ondorioz, emaitza horiei arrazoi bat aurkitzen eta konponbide bat ematen saiatzen naiz lan honen bidez. Zigor Zuzenbidean badira tipo penal batzuk nun zigorra astuntzen den arrazoi desberdinetan oinarrituz. Nire helburua lan honen bidez aipatutako indarkerien biktimak diren emakume guztiak babesten dituen artikulua bilatzea izan da. Pentsa daiteke Zigor Zuzenbidearen eremuan horrelako artikulua edo tipo penal bat aurkitzea erraza izan daitekeela, baina uste duguna baina zailagoa da. Izan ere, Zigor Kodea irakurriz gero, askotan zigorra astuntzen da idarkeria mota hauek saihesteko asmoz baina ez dute kontuan hartzen ea delitugileak emakumea diskriminatzeko helburuarekin jardun duen. Kasu batzuetan nahikoa da desberdintasun biologiko bat egotea delitugilea eta biktimaren artean zigorra astuntzeko. Niri pertsonalki justifikazio hori ez zait nahikoa iruditzen, nire ustez, diskriminazioa egon den ala ez kontuan hartu behar da, bestela gizartean ez dugu kontzientzia sortzen eta ez dugu emakumearen aurkako indarkeria eta genero-indarkeria saihesten laguntzen. Hori dela eta, GrAL honen bidez, diskriminazio hori kontuan hartzen duen eta aipatutako indarkeriak saihesten laguntzen duen artikulua bat bilatzen saiatu naiz. Bukatzeko, adierazi nahi dut Zigor Zuzenbidearen bidez, eta ondorioz, GrAL honetan egindako ekarpenen bidez ez dugula emakumearen aurkako indarkeriarekin amaituko, baina bai aurrerapauso bat izan daitekeela indarkeria mota hau saihesteko.